

AMERIKAREN AURKIKUNDEA
1492-1992

1. V. Mendeurrena

Amerikaren aurkikundearen V. mendeurrena dela eta hain gauza desberdin eta okerrak entzun eta irakurririk, zenbait gogoeta egin beharrean gaude.

Lehenengo eta behin, aurkikundeaz eta haren garapen sozio-politiko-erlijiosoaz, alde bata edo bestea gehiegi markatuz gero, «liburu beltza» nahiz «liburu zuria» idatz daitekeela esan behar, baterako nahiz besterako haria ematen baitu gai honek. Honek, guztia beltz eta ilun ikustera eraman ditu batzuk; beste batzuk, berriz, guztia zuri eta argitsu ikustera. Alde batetik, istorio gehiegi dago guztia goraipatzen, giza duintasunaren aurkako ekintza asko zuritzen; beste aldetik, ezer onik egin ez balitz bezala ezta txikienik ere, guztia gaitzesten dutenak ere badira...

Ertzerik ertz ibiltzea ez da ona, ezta alderdikieriaz jokatzea ere. Gauza hau bere osotasunean epaitu beharra dago, XV. mendearen amaierako eta XVI.aren hasierako egoera eta pentsaera kontutan izanik batez ere.

Askotan, propagandaren eraginez, derrigorrezko pentsamolde bat finkatzen da mendeetan, egiazkoa ez dena edo errealitateari ez dagokiona. Esaterako, Frantziako Iraultzak hasieratik, ia bi

mendetan zehar, bere aldeko propaganda izan du... hau da, ikuspegi koloretsutik eta mito antzera agertu nahi izan da. Baina orain, azken urteotan, historiak argi eginik, horretaz gogoeta berriak egin dira eta alde sozio-politiko eta kultural-demografikoei dagokienez, errealitatea beste era batetara agertzen da.

Amerikaren Aurkikundeari dagokionez, behar bada, alderantziz gertatuko da. Hasieratik izan zuen honek hots txarra (nondik eta zer interesetatik zetorren jakin gabe...). Bertako gizartearen bizitza, uste okerrez ia paradisuko bizimodutzat jotzen zena, goitik behera lardaskatu zuela esan ohi zen. Sistematikoki bertakoen sarraskia eragin zuela, genozidio ikaragarri hartatik bizirik iraun zutenei pentsaezineko gehiegikeriak eginik eta abar. Historia apurka-apurka argi eginez doa eta pentsaera hau guztiz faltsua dela frogatuz. Izan ere, indioak ez ziren zenbaitek agertu nahi izan diguten bezain aingeruak eta, beste aldetik, benetako genozidiorik ere ez zen gertatu; eta kolonizazioa ere ez zen menperatze basati hutsa izan. Baina historialariek lortzen duten argiak ez du behar lukeen zabalkundearik... Ez ote dugu egia jakin nahi?

2. Ebanjelizatzea eta gizatasuna

Egia esan, Ameriketara eraman zen gauzarik baliotsu eta handiena kristautasuna izan zen. Giza historiaren helburu den Kristo ezagutaraztea; pertsona izatea gorengo mailaraino jasotzen duen Kristo iragartzea. Eragozpenak eragozpen, orduan eta orain, Eliza beti agertu da bertakoen, indioen, ondoan.

Argi-ilun eta guzti, ebanjelizatzearen errealitate historikoa agertzen duen Latino-Amerikako Apezpikuen Batzarraren dokumentua (1992) aipatuko dut hemen:

«Colon-en lehenengo bidaiak ebanjelizatzearen helbururik izan ez bazuen ere, bigarrenetan, 1493.ean, horren premiaz ohartu ziren eta orduantxe heldu ziren hara lehenengo misiolariak.

Francisco Jiménez Cisneros kardinala buru zela lortutako eliz berrikuntzari esker, Espainiako kristau-elkarteak bizitasun

handia zuen. Eta hori argi ikusi ahal izan zen lehen ebanjelizatze hartan agerturiko berotasun, adore eta pastoral senean. Lehen garaiko misiolari haiek bertakoengan ereina zen Jainkoaren dohaina aitortzen, errespetatzen eta emankor bihurtzen jakin zuten.

Hala ere, kristauen artean zen pentsaera eta penintsularen hegoaldeko errekonkistak haiengan zuen eragina, eragozpen handiak ziren herri haien erlijio-praktikak ongi ulertzeko. Jainkoaren laguntza lortzeko, mito, errito, giza sakrifizio eta ohitura bitxiak zituzten. Idolatriazko ekintza haiek nardagarritzat eta zeharo gaitzesgarritzat jo zituzten misiolariak, barne-barnean zituzten erlijio-balioez ohartu gabe. Dena dela, indioak egoskor eta maltzurak zirenez gero, erlijio berrian euren erlijio zaharreko hainbat gauzatxo sartzeko modua egin zuten. Sineste eta erritoen nahasketa honetan du jatorria, indioen erlijiotasun berezi horrek, oraindik ere nahiko ongi nabari denak».

3. *Euskaldunak eta Frai Juan de Zumarraga*

Ez da ahaztekoa euskaldunek mundu berrien aurkikundean eta konkistan izan duten garrantzia: Bolivia, Kalifornia, Txile, Kolonia, Ekuador, Mexiko, Peru, Venezuela eta abarrek euskaldun pertsona aipagarriak dakarzkigute oroimenera... eta batez ere Ordena desberdinetako misiolari mordoa, lehen eta orain baliorik gorena, Jesus, munduari aurkezten etengabe dihardutenak.

Ekintza bikain eta baliotsu honen adierazgarri, bere semeetariko bat aurkeztuko dut, gaizatasun eta maitasunaren eredu:

Fra Juan de Zumarraga

Durangoko seme hau izugarrizko nortasun eta iharduera izandakoa dugu. Arantzazuko komentuan sarturik, frantziskotar egin zen. Beste zenbait karguren artean, probintziala izan zen. 1548.ean Mexikoko lehen artzapezpiku. Aita Santuaren

Inkisidore ere izan zen; oso gizon apala, santuen tankerakoa, txiroen maitalea eta indioen defendatzailea, misio-iharduera handikoa: indioentzat eskola eta ikastetxe ospetsuak bultzatu zituen; haur indioentzako eskolak; Frantziskotarren Tlaltelolco-ko Santiago ikastetxearen fundatzaileen artekoa (1536). Unibertsitate bat eraikitzea proiektatu zuen (1539). Amerikako lehen inprimategia sortu zuen (1539). Bere etxean Mundu Berriko lehen biblioteca garrantzitsua antolatu zuen. Ez dugu ahaztu behar, gainera, bertakoen aldeko kultura ekintza hauek aurrera eramateko aginte zibil eta militarren oztopo latzak gainditu beharrean izan zela.

Mexikon hil zen 1548.ean, santu baten antzera, txiro. Nahikoa litzateke, gizatasun, jakinduria eta erlijiotasun aldetik begiraturik, hau bezalako nortasun handiko pertsona bat euskaldunon nazio txikia ospez betetzeko. Areago oraindik, dirudienez, ez da Euskal Herriko, Espainiako eta Amerikako pertsona bikainen artean zor zaion lekuan jarria izan gaur arte...